



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ERABAKIA, 2019KO URRIAREN 3KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2019ko ekainaren 26ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle agregatuen plazak betetzeko (2019ko uztailaren 11ko EHAA), eta amaituta onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), Errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta campusetako errektoreordetzetakoetan ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere (<http://www.ehu.es/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari, eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2019ko urriaren 3a.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 2017/02/03ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea



Izpta.: Inmaculada Guerricagoitia Marina



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: AGC8L1- D00057-10. Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Fisika Aplikatua. Saila: Fisika Aplikatua I. Ikastegia: Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola. Hizkuntz eskakizuna: Hirueleduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Akustika» eta «Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak».

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: ANE SARASOLA IÑIGUEZ
NAN: ***3228**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez

Lanpostuaren zenbakia: 2. Kodea: AGC8L1- D000115-15. Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Estetika eta Arteen Teoria. Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia. Ikastegia: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Estetika I: argien mendea».

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: CRISTINA MARIA LASA OCHOTECO
NAN: ***2316**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez